

TXIKITTO

2008-10 • 98. zenbakia



Multikirola
URETAN

Berriak

"Ikasturte on denoi **Urkiko** eskolatik! Gogotsu hasi gara lanean, hainbat ekintzatan sartuta. Eskutan ditugu jada aurtengo agendak eta oso pozik ikusi ditugu ezagunen argazkiak. Lanean ere laguntzen digute, hainbat esamolde zuzentzen.

Eskolako 6. mailako ikasleak Liburutegira joan ziren urriaren 3an, erabilera, arauak eta zerbitzuak ezagutzeko.

Hilaren 8an 5. eta 6. mailakoek "Zure elikadura zure bizitza da, zain ezazu" tailerrean parte hartu zuten. Ikasleak honetan zeuden bitartean, gurasoek hitzaldia eduki zuten gai beraren inguruan. 15ean 1. eta 2. mailakoei tokatzen zaie, oraingoan "Ondo elikatzen bazara indartsu eta osasuntsu haziko zara". Hauen gurasoek ere hitzaldia izan dute.



Ez ezazue pentsa, baina, elikadurarekin bakarrik arduratuta gabiltzala. Urriaren 2an hasi ginen bertsolaritza programarekin, eta ziur 5 eta 6. mailako ikasle horiek jo eta ke ari direla lanean iazko maila lortzeko, eta Sanandresetako lehiaketan parte hartzeko. Besteok ere antzera ibiliko zarete eta, hor dugu erronka! Bitartean, goza ezazue bertsolaritzaz eta trebeenak irabaz dezala. Animo eta parte har ezazue!"

"2008-09 ikasturtea hasi berri dugu eta aurrekoetan bezala, aurten ere **La Sallen** hasiera berezia eman nahi izan diogu.

1. ziklokoak Krabelinetik San Pedrora oinez joan zen, aparteko mendizaleak direla erakutsiz .

2. ziklokoak Donostiako zinemaldira joateko aukera aprobetxatu zuten. "Nanny Mcabee" izenburua duen filma ikusi zuten.

3. ziklokoek Arratera joatea tokatu zitzairen. Izerdi patsetan iritsi arren, laster animatu ziren danak eta jokuei eta hamarretakoari gogoz ekin zieten (azkenari batez ere)."

"Irailaren 26an, **Urkizu** eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleok Udalak bidalitako kontsultaren aurrean gure iritzia eman ahal izan dugu. Hiru argazki aurrean izanik, ikastetxe ondoko parkean jarri behar zuten tramankulu gustokoena aukeratu genuen. Emaitza oso argia izan zen, ia gehiengoak bere bozka tramankulu berari eman genion eta.

Bestetik, Urkizu eskolan, ikasturte honetan ere, berriro zabaldu dute 'Euskal bideokluba'. 6. mailako ikasleek antolatzen dute hau eta 100 filma baino gehiago daude. Nahiko luke Donostiako Zinemaldiak!

Azkenik, Urkizu eskolan urriaren 13etik 17ra euskara kanpaina egin genuen: "Euskararekin mendian gora" izenekoa. Ikasleak oso pozik ibili dira eta garrantzitsuena, euskara gehiago erabili dute."

ARGITARATZAILEA: " ...eta kitto!" Euskara Elkarteak, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776.
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Ekhi Belar, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte.
ERREDAKZIOA, MAKETAZIOA ETA BANAKETA: Ekhi Belar, Ainhoa Luz eta Koldo Mitxelena.

kaixooooo!

Hasi dogu ikasturte barrixa! Zer moduz oporraldixa? Ondo, ezta? Lasai, eskolako orduak hasi badira be, hamendik aurrera hillian behiñ eukiko dozue Txikitto!ren bisitia.



Zuek egindako lanak eta zuendako apropos pentsatutako reportaje eta elkarrizketak egingo dittugu aurten be.

ARGAZKIAK: ...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.
AZALEKO ARGAZKIA: Ekhi Belar.
TIRADA: 1.350 ale.
INPRIMATEGIA: GERTU koop. (Ofiati).
COPYRIGHT-A: Txikitto!
LEGE-GORDAILUA: SS-1111/96



Eibarko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria





Zu margolari



ARGAZKI ASKO EGIN DUZUE UDAN? MUTIKO
HONEK BAI BENETAN...



AUKITU 7 DESBERDINTASUNAK




Mikel Alex
SANTI ION

Lagundu umeari komunitate autistaren


Andoni E.
Alfonso R.





1. beltza
2. Gorria
3. Azal Kolorea
4. Marroia

MARTINZ, JONE, AINARA eta HARRISON



3-2-Grisa
 7x6-Naranja
 7x8-Gorria
 6x9-Azal colorea
 2+2-Rosa
 8x8-Urdina
 10+5-Oria
 6-4-Beltza
 5+5-Berde
 pistaia

JOSE' Etxebarria ITSASO ROJO
 Iñigo Ruiz Bristeidy A Perez

margo magikoak

Bazen behin Uxue izeneko neskatok bat. Gaur Uxueren urtebetetzea da eta bere gurasoek margo batzuk oparitu dizkiote. Uxueri asko gustatzen zaio margotzea, baina ez da hain ona.

Bere herrian margotzen ikasteko toki bat zegoen, baina Uxuek gaur 8 urte bete ditu, eta hor apuntatzeko bederatzi urte behar direlako ezin izan da apuntatu. Uxue triste zegoen, berak margotzen ikastea nahi zuen. Bere

margo berriekin margotzen hasi zen, eta harrituta gelditu zen inoiz egin zuen txakur politena egin zuelako egun hartan. Beste gauza asko egin zituen eta inoiz baino politagoak atera zitzaizkion. Oso harro zegoen, baina gero konturatu zen izkin batean 'Margo magikoak' ipintzen zuela, eta egunero horiekin margotzen zuen.

Hilabete batzuk pasa ondoren, margo normal batzuk hartu zituen konturatu gabe eta ondo margotzen zuen. Ondo margotzen ikasi zuen, oso pozik zegoen eta handitan margolari ospetsua izan zen Uxue.

Irati Cobo Ugarteburu



Farola baten azpian mozkor bat zegoen Aneri ohiuka deitzen. Eta handik igarotzen ari zen pertsona batek galdetu zion:

-Zer egiten ari zara?

-Aneri deika.

-Ba ez du ematen inor dagoenik.

-Bai, argia dago.



Ume batek amari:

-Ama! Ama! Eskolan Ranbo deitzen didate.

-Lasai, seme, zuzendariarekin hitz egingo dut.

-Ez, ez, ama, lasai, hori nire misioa da.

Mozkor batek neska bat aurkitzen du, eta mozkorrak esaten dio:

-Oso itsusia zara neska.

-A, bai, ba zu mozkortuta zaude.

-Bai, baina nirea biharko pasatu egiten da.

Motor batean monjatxo bi elizarako bidean daude eta inork pasatu ez duen kurba bat, garbi-garbi, zast, pasatzea lortzen dute. Handik zegoen ertzaintzako gizon batek, hura ikusita ezin sinesturik, galdetzen die:

-Nola demontre lortu duzue kurba hori igarotzea?

-Jesus gurekin zelako.

-Ba orduan isuna jarri behar dizuet.

-Zergatik?

-Motorrean hiru joatearren.



-Josetxo, ze zoriontsuak ginen duela 15 urte!

-Duela 15 urte? Baina duela 15 urte ez genuen elkar ezagutzen eta!

-Horrexegatik ba!



Denborapasak

Bost urteko umetxo bat eskolan zegoen zenbakiak ikasten eta, eztarriko mina zuenez, irakasleak gurasoei deitu zien. Gurasoak ezin ziren etorri eta, euren ordeztan, izeba etorri zen. Izebak lau gauza baino ez zekizkien euskeraz, baina umearekin euskeraz hitz egiten saiatzen zen. Umea eta izeba medikuarenean itxaroten zeudela, izebak galdetzen dio:

- Zer egin duzue eskolan?
- Zenbakiak.
- A, bai, ea nola zenbatzen duzun.
- Bat, bi, hiru, bost, sei...
- "Y el" lau?
- Izoko helau ez, pupu estarrarian.

Hirurogei urteko senarrak berrogeita hamabost urteko emazteari:

- Maitea, eta ni ibaira eroriko banintz, etorriko al zinateke ni laguntzera?

Eta pittin bat, ez gehiegi, pentsatu ondoren:

Eta baietz erantzungo banizu, botako al zinateke?

Bazen behin Donostiara sekula jaitsi gabeko baserritar bat. Trenean ibili behar zuela-eta, zuzen-zuzenean geltokira jaisten da. Hantxe maletak hartu, eta geltokian alde batetik bestera oinez, tipi-tapa, tipi-tapa. Hamar minutu, hogeita minutu, ordu erdi bat, eta tipi-tapa, tipi-tapa, batetik bestera oinez. Geltokiko gizona etortzen zaio eta:

- Baina, gizona, zure trenea oraindik ez da etorriko, eta eseri zaitez.
- Aizu, ni baserritarra izango naiz, baina ez analfabetoa, e? Hor 'anden' jartzen du, e?





Bilboko familia bat loreak jartzen ari da hildako senideen hilobiaren gainean. Aldameneko hilobian, berriz, Txinatik etorritako gizonezko bat arroz platertxo bat ari da uzten.

Hori ikusita, bilbotarrak barre-algararaka hasten dira, txinatarrak trufatzen. Txinatarrarengana inguratu eta zera esaten diote:

-Eta zuek zer uste duzue?
Hildakoak gabez esnatu eta
arroza jaten hasiko direla edo?

Eta txinatarrak:

- Bai, noski! Zuen hildakoak
loreak usaintzera jaikitzen diren
ordu berean.

Esan zuen andereñoak:

-Oilar batek arrautza bat jartzen badu Euskal Herria eta Frantziaren arteko mugan, norentzat izango da?

Erantzuten du Josebak:

-Euskal Herrikoentzat.

Orduan, andereñoak galdetzen dio:

-Zergatik, Joseba?

Josebak erantzuten du:

-Euskal Herrikook arrautza gehiago daukagulako.

Andereñoak esaten dio barre eginez:

-Oilarrek ez dute arrautzarik jartzen.

***TXISTEEN EGILEAK: AINHOA AYALA,
MAIDER IRIONDO, JON ESTANISLAO,
ASIER LOIDI, JANIRE FERNANDEZ,
LEIRE NISTAL, ALEX FELJOO,
NATALIA PRINTES NADA.***



Txikihoroskopa

ARIES



Kaixo, Aries maitea! Bueltan gaude berriro, eta Txikittoko lehen aldizkari honetan astroek hilabete ona pasatuko duzula diote. Beraz, zoriontsua izango zara!



TAURUS

Eskolarako buelta nahiko gogorra izan da zuretzat. Faltan bota dituzu udako egun luze horiek, beti jolasean. Hala ere, ohitu zara eta herrian ere oso ondo zaude.



GEMINIS

Maiteminduta egotea munduko gauza politena izan badaiteke ere, gogorra ere bada. Batez ere, beste pertsona horrek gauza bera sentitzen ez badu. Zure kasuan horrela da?



CANCER

Gaizki sentitzen zara egin duzun horregatik? Normala, barrabasketietan ibiltzea ez da, gutxienez, oso egokia. Barkamena eskatzea, askotan, ez da nahikoa. Ondo pentsatu!



LEO

Super-heroia izatea gustatuko litzaizuke askotan. Mundua salbatzea eta horrelakoak. Ba ezinezkoa da; beraz, mundua ondo zaintzen saiatu gutxienez.



VIRGO

Beldurtuko zaituen zerbait gertatuko zaizu datorren astean. Egia esan, errez izutzen zaren pertsona zara; beraz, ez da gauza oso harrigarria izango.



Irakaslea oso pozik dago zurekin. Oso langilea zara eta ikasle bikaina. Horrela jarraituko duzu hurrengo hilabeteetan, jarrera egokiari eutsiko diozulako.



Pozik dituzu etxeoak... Zergaitik zara hain bihurria? Bihotz ona daukazu, argi dago, baina bihurrikeria gehiegi egiten dituzu. Hobeto portatuko zara?



Zorteko zaude! Lurrean txanpon bat aurkituko duzu aste bi barru. Eta ondo gordetzen jakiten baduzu, erosi nahi zenuen hori eskuratu ahal izango duzu!



Telebistan esaten den guztia ez da egia. Bai, horrela da, sentitzen dut hori esatea, baina hobe errealitatea jakitea. Gainera, dena sinisten duen pertsona zara zu!



Zenbat urte dituzu? Bai? Hainbeste? Azkar pasatzen da denbora, ezta? Ba, sasoi ederrak biziko dituzu hurrengo egunetan, aspaldi espero zenituenak.



Zein da irakurri duzun azken liburua? Uhm... gehiago irakurri beharko zenuke, ez duzu uste? Istorio ezberdinetan murgildu zaitte, zuk nahi beste!

WWW.KONTUKONTARI.COM

Teknologia berriekin, ipuin batez gozatzeko ez duzu zertan liburu bat hartu, ez dituzu zertan paperak eskuan izan behar. Orain, interneten ere historia harrigarrietan murgildu zaitezke, eta irakurketa hutsaz haratago joan. Webgune honetan lortu dezakezu hori. 5

pertsonaia aurkituko dituzu webgunean: Mikel, Dani, Nerea, Elena eta Josu. Boskote honek, bideo batzuen bitartez, kontu ezberdinak kontatuko dizkizu, zein baino zein interesgarriago. Gainera, balore ezberdinak jaso eta horietaz ikasteko aukera ematen dute: errespetua eta tolerantzia, besteak beste. Umeek gozatu eta ikasteko aukera izateaz gain, gurasoek ere euren txokoa daukate, eurek ere oraindik hainbat gauza ikasteko dituzte-eta!



WWW.BERTSOZALE.COM/BERTSO-ESKOLAK

Zuetariko askok ezagutuko duzue bertsozale zer den. Izan ere, zuetariko askok hartzen duzue parte bertan, eurek irakatsitakoa ikasten duzue eta bertso-eskoletako partaide zarete. Ba, kontu honetaz gehiago jakin nahi izanez gero, internetera jo dezakezue. Izan ere, bertso-eskolek

webgunea daukate eta, eskolan ikasteaz gain, zuen etxeetatik ere zortziko txiki edo koplak lantzeko aukera daukazue. Bertsoak modu dibertigarrian ikasteko aukera eskaintzen dute bertso-eskolakoek. Jolasak egin ahal izango dituzue, argazki ezberdinak ikusi, beste bertsozale batzuekin berba egin edo maitasunezko gutunak idatzi gustoko duzun lagunari. Audioa, bideoa, multimedia... edozer aurkituko duzu webgunean bertsoan egiten ikasteko.



erreportajea



Bost marra... pentagrama!

Udako oporrak amaitu eta ikasturtea hasten da. Ikasturtea hasteak, ez du eskola hasten dela bakarrik esan nahi. Horrekin batera kirolen denboraldi berria eta margo-margolaritza eskolaren kurtso berria ere hasten dira, besteak beste. Hauen artean musika eskola aurkitzen da.

Irailaren 11n hasi ziren klaseak Portalean dagoen 'Juan Bautista Gisasola' musika eskolan. 350 ume inguru pasatzen dira bertatik astelehentik barixakura, astero-astero, musika ikastera, musikan dituzten dohainak gehiago lantzeraz eta, nola ez, musikaz gozatzera.

Musikaren gainean gauza ezberdinak ikasteko aukera luzatzen dute musika eskolakoek. Hori bai, eskolan sartzeko 7 urte izan behar da, gutxienez. Ikasketen artean akordeoia, bibolina, biolontxelo, klarineta, flauta, txistua, kitarra, talde instrumentala, musika ikaskuntza, oboea, perkusioa, pianoa, rocka (baxua, kitarra, teklatuak,

bateria), saxofoia, tronpeta, trikitixa, kamara musika eta korala agertzen dira. Horien artean, musika eskolako irakaslea den Marisolek argitzen digun bezala, *"bibolina, kitarra, saxofoia, tronpeta eta trikitixa dira aurten arrakasta gehien izan dituztenak. Hala ere, moda kontu bat da hori gehienetan"*.

Talde ezberdinak

Musika kontuak ikasteaz gain, ikasitako hori Eibarko publikoari erakusteko auke-



ra izaten dute musika eskolako ikasleek kurtsoan zehar. *“Kontzertuak eskaintzen ditugu, jaietan parte hartzen dugu, kaleetan kantuan ibiltzen gara eta abar. Eskatzen diguten heinean, gauza batzuetan edo besteetan hartzen dugu parte”*, dio Marisolek. Horrela, musika tresnekin beste modu batean aritzeko, akordeoi taldea, triki taldea, perkusio taldea eta rock taldea egiteko aukera luzatzen da musika eskolatik. Bestalde, *“15 urtetik*

gorakoentzat, orain, koro gaztea sortu dugu”.

Hasiera ona

Musika eskolan izena emateko epea maiatzetik ekainera izan zen, beraz, orain ezin izango da izena eman. Kurtso berriaren hasiera, bestetik, *“oso ona”* izan dela aipatzen du Marisolek. *“Jende berriak izena eman zuen eta ez dute hainbeste pertsonak utzi musika eskola”*.

Klaseen ordutegia, bestalde, irakasle eta ikasleen artean zehazten da. Gehienak asteleheneetik barixakura izaten dira arratsaldeetan. *“Hala ere, batzuk eguerdian ikastea nahi izaten dute”*.



Txikinkesta

Zelakua izan da eskolara bueltia?



**LEIRE
GANADO.**

10 urte


Orokorrian ondo
juan dala esango
neban. Oin gauza
barrixak ikasten
hasi gara.

Hasieran gogo
gitxirekin hasi
nintzan, baiña
lagunak ikustia
be nahi neban.

**ANDER
MARIA.**

11 urte

Ikasturte hasieria
tristia izan zan,
baiña era berian
pozik neguan.
Triste, barriro be
ikasten hasi bihar
nintzalako. Eta
pozik, lagunak
barriro be
ikusteko.



Udako oporren ostian ikastetxiak atiak zabaldu ditzuzte barrero. Irakasliak, lagunak... barrero normaltasunera bueltatzeko sasoa aillegau da.

NEKANE MUGURUZA.

11 urte

Gogua nekan eskolara bueltatzeko, lagunak barrero be ikusteko gogua nekalako. Holan, ondo hasi dot eskolia, nahiz eta hasieria gogorra izan.



UNAI SANTOS.

10 urte

Eskolara bueltia ona izan dala esan leiket. Ez zetan pena haundirik emon, lagunekin egoteko gogo haundixa nekalako; beraz, ez nintzan triste ipiñi.



dordoka zaharra

Bazen behin dordoka zahar bat. 999 urte zituen eta laister 1.000 urte egin behar zituen. Oso pozik zegoen eta pentsatu zuen festa bat egitea herri guztiarekin. 999 urte pasatuta lagun asko eduki behar zituen-eta. Oso pozik, deneri gonbidatzera joan zen.

Hurrengo egunean bere urtebetetzea zen eta dotore-dotore jarri zen, oso oso pozik zegoela-

k o .

K a l e r a
j a i t s i

z e n e a n
h e r r i t a -
r r e k e s a -

t e n z i o t e n
a l d e b a t e t i k e t a

b e s t e t i k .

- Z o r i o n a k !

D o r d o k a z a h a r ,
z o r i o n a k !

D o r d o k a b e n e t a n p o z -
p o z i k z e g o e n .

Arratsaldean festara joan ziren denak eta oso ondo askaldu zuten. Ondoren, gazte batek esan zion dordoka zaharrari:

-Orain nire aurka lasterketa bat egiten baduzu, ez didazu irabaziko.

Eta dordoka zaharrak erantzun zion:

-Gezurra, ez didazu irabaziko.

Lasterketa egiten hasi ziren, eta herriari buelta eman behar zituenez, dordoka zaharrak bidea oso ondo ezagutzen zuen, baina gazteak ez. Dordoka zaharrari jendeak kotxean, bizikleta eta abar lagundu zioten, baina gazteari ez. Beraz, galdu egin zuen lasterketa azken honek.

Olatz Mandiola



kirolak eibarren

WATERPOLOA

Aurtengo berritasuna da waterpoloa multikirolean. Estreinekoz, partehartzaileek uretan murgildu eta herrian gero eta zaletu gehiago dituen kirol hau praktikatu ahal izango dute datozen asteetan.



Telebistan erraza dirudi. *"Baina uretan pilota alde batetik bestera pasatzen dute, besterik ez!"*. Orain, waterpoloa erraza den edo ez ikusi ahal izango dute Multikiroletan parte hartzen duten umeek. Igeri egin, uretan flotatu eta baloia tre-beziaz mugitzen ikasteko aukera izango dute aurtien estreinekoz Eibarko umeek.

Urriaren 13an ekin zioten multikirolei umeek; horrela, igerilekuan 105 bildu ziren waterpoloan egi-

teko. Urbat taldeko kideak arduratzen dira umeak entrenatu eta zaintzeaz. *"12 bat monitore gabiz eurekin; beraz, edozer gertatuta ere adi egoten gara"*, dio Jose Luis Ferrer Urbateko kideak.

Alebinak aritu dira lehen-dabizi waterpoloan, hau da, 5. eta 6. mailakoak. Jose Luisen berbetan, *"oso pozik ikusi genituen, ondo pasatzen dutela antzematen da"*. Bi astetan zehar ibili dira alebinak, eta ondoren txikiek hartzen dute lekukoa, 3. eta 4. mailakoek (120 ikasle guztira).

Waterpoloan aritzeaz gain, ekintza ezberdinak egin izan dute igerilekuan saio hauetan umeek. *"Errelebo mota ezberdinak egin zituzten eta, gero, ur-polo, basket-polo eta boleibolera jolastu zuten uretan"*.

Herrian gero eta zaletu gehiago dituen kirola da waterpoloa, eta horren adierazgarria da Urbatek jubenilen talde bat atera berri izana. *"Multikirolekin, gure helburua da waterpolo umeen artean ezagutze-ra ematea"*. Beraz, murgildu waterpoloan!



Multikirolak

Ikasturtearekin batera, Multikirolak ere martxan jarri dira. Leire Iñarrairaegi 11 urteko neskarentzat estreineko aldia da aurtengoa, baina Unai Eibar 9 urteko ikasleak badauka esperientzia Multikiroletan. Gogotsu ekin diote biek ikasturteari.

-Hasi zarete jada Multikiroletan.

Zuek, profesionalek bezala, aurrendenboraldia egin duzue udan?

(Biek): Ez, ez.

(Leire): Ni iaz Urkikoekin aritu nintzen kirol batzuetan, eta udan ere zerbait egin dut, baina ez aurrendenboraldia dela esaterainoko ezer. Horrela, foballean, igerian eta saskibaloian ibili naiz udan.

(Unai): Hondartzan hainbat kirol praktikatu ditut, pixka

bat denetarik.

-Aurten, Multikirolekin hasteko, gainera, kirol berri bat ari zarete

praktikatzen:

waterpoloa.

Gustora

zabiltzate?

(L): Bai, oso ondo dago. Igerilekuan entrenatu egiten dugu eta baita jolas batzuk ere.

(U): Igerilekuan egin daitezkeen jolas ezberdinak praktikatzen ditugu. Horrela, waterpolo, boleibol eta igerian ibiltzen gara.



-Zein kirol egingo duzue ikasturte honetan zehar?

(Biak): Foballa, kanpoko kirolak (atletismoa eta abar), eskubaloia eta errugbia.

-Zein kirol egiteko gogoak daukazue?





**Unai Eibar eta Leire
Iñarairaegi:**

**“Eskubaloia, foballa
eta errugbia egin
genituen iaz”**

(L): Foballa. Beti foballean egiten dugu eskolan; beraz, kirol gustokoena daukat.

(U): Nik eskubaloian aritzeko gogoia daukat, hori da nire kirol gustokoena.

-Multikiroletako zein kirol da

gutxien gustatzen zaizuena?

(L): Errugbia. Nahiko gogorra da, eta horregatik.

(U): Nik ere errugbia dela esango nuke.

-Zuk, Unai, esperientzia gehiago daukazu; zu Leire, berriz, hasi berria zara Multikiroletan.

Hala ere, nolako esperientzia izaten ari da biontzat?

(Biek): Ona. Kirola egiten duzu eta, gainera, lagunartean, oso ondo dago.

-Leire moduan,


jende gehiago animatu da Multikiroletan parte hartzera?

(U): Bai. Gure klasean, adibidez, iaz 16 aritzen ginen Multikiroletan, eta aurten, berriz, 20 lagunek eman dugu izena kurtso honetan multikiroletan jarduteko.

(L): Bai, beno, ni neu. Bestalde, esango nuke, baita ere, beste eskola batzuetan ikasle batzuk presioa egiten diela besteei parte har ez dezaten, kiroletan txarrak direlako.



ITSULAPIKOA



Etxean behin baino gehiagotan esaten dute dirua gorde beharra dagoela, baina ez duzu leku egokirik... Gaurko eskulana amaitu eta gero ezingo duzu horrelakorik esan, dirua gordetzeko itsulapiko polita egiteko aukera duzu hemen-eta.


PAUSOAK:

- 1- Itsulapikoaren tamaina nolakoa izatea nahi duzunaren arabera puztu globoa. Itsulapikoa gero eta handiagoa izan, diru gehiago gorde ahal izango dugu bertan.
- 2- Globoa puzten dugunean, muturra lotu behar da ez husteko.
- 3- Orain, hankak egingo dizkiogu itsulapikoari. Horretarako, papera hartu eta lau tira luze egiten ditugu. Zig-zagean tolesten ditugu (marrazkiko borobil gorrian ikus daitekeen bezala) eta karratu bat eginez itsasten ditugu globoan.
- 4- Itsulapikoari forma ematen diogu, globoa eta hankak buztin geruza batekin estaliz. Buztina urarekin nahastuz malgutasun handiagoa lortuko dugu nahasturan.
- 5- Buztina lehortu baino lehenago, zulo luze bat egiten dugu hankak dauden kontrako aldean. Bere tamaina txanpon batena baino handiagoa izan behar da, hau erraz sar dadin.
- 6- Txerriaren itxura emateko, buztinezko hiru biribil egiten ditugu: horietariko biri erdian ebakidura egiten diegu, eta

hirugarrenari
mozketa bi egiten
dizkiogu alboetan.
Zirkulu hauek
itsulapikoaren
aurrealdean itsas-
ten ditugu euren
atzealdea pixkat
bat bustiz.

7- Egindakoa
lehortzen laga eta
globoa guraizeekin
apurtzen dugu
egindako
zulotxotik.

8- Lehortzen
denean, hor
itsulapikoa! Nahi
izanez gero, kolore
ezberdinez
margotu dezakezu
eta nahi diozun
itxura eman. Zorte
on aurrezten
duzunarekin!



AHOLKUAK:

- Globo borobila.
- Paperezko horria.
- Zinta eransgarria.
- Bastoitxoak.
- Guraizeak.
- Buztina.
- Ura.



TARZANIK GABEKO OHIAN BATEAN

ARROSA KOLOREKO OHIAN BATEAN, TITO ELEFANTEAK DANTZARIA IZAN NAHI ZUEN, 'BALLET' DANTZARIA, HAIN ZUZEN. -BEHINTZAT, AUKERATU IZAN BAHU ROCK DANTZARIA IZATEA, EDO 'HIP-HOP' DANTZATZEA, EDO EZ ZAKIAT... AGIAN, ARETOKO DANTZAK IKASTEA, BAINA BENETAN ZAILA EGITEN ZAIDAIK 'TUTU' ARROSA BATEKIN, 'BALLETA' EGITEN, ELEFANTE BAT IMAJINATZEA —ESATEN ZION SAGUTXO LAGUNAK TITO ELEFANTEARI, BEHIN ETA BERRIRO.



JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN


ETZI

BRUNO. HAMAIRU URTE. EZIN DITU BESTE NESKA-MUTIKOEK EGIN DITZAKETEN GAUZA ASKO EGIN; DOHAIN HANDIAK DITU, BAINA GABEZIAK ERE BAI. MUSU INDARTSUAK EMATEN DIZKIE GURASOEI, NOBIA ERE BADU, BURUGOGORRA DA, BIHURRIA, MAITAGARRI... ETXEAN ASKO ESTIMATZEN DUTE, BAINA ORAIN BRUNOREN ESERLEKUA HUTSIK DAGO.



HEGOALDERA

BERE JAIOTERRITIK SEKULA IRTEN EZ DEN HAMAR URTEKO NESKATO BATEK 15 EGUN PASA BEHAR DITU BERE AITAREKIN, IRAGAN ILUNEKO GIZON BAT, HAINBAT URTETAN ELKAR IKUSI GABE EGON ONDOREN. MILA KILOMETROTIK GORAKO BIDAIA BATI EKINGO DIOTE, IA BATERE DIRURIK GABE, ZORTEAREN ESKU UTZIZ ETAPA BAKOITZAREN GARAPENA. EGUNEROKO ZAILTASUNEKIN BATERA, BERRIRO ELKARREKIN BIZITZEKO POSIBILITATEA DAGO JOKOAN.





NUR ETA IRLANDAR GNOMOA

AMAREN ETXEKO ZAKARRONTZIAN GNOMO BAT AGERTU DA ETA, HARREZKERO, NUR ZORIONTSUA DA. AITONAK USTE DU ARRATOI BAT DELA, ETA ZEPOAK JARRI ETA JARRI ARI DA. BIEN BITARTEAN, NUR, AINARA, NOELIA, UNAI ETA PEIO JOLAS ETA JOLAS ARI DIRA FINN-EKIN —HALAXE DEITZEN DA IRLANDA GNOMOA—, ETA HAIEN ABENTURETAKO LAGUNIK HOBERENA IZANGO DA AURRERANTZEAN



JOKIN GALTLAGORRI

MAIDERREK GALTLAGORRI BAT HARRAPATU DU: JOKIN. JAKINA DA GALTLAGORRIAK OSO LANGILEAK DIRELA, ETA MAIDER GUSTURA ZEGOEN HORREGATIK, LANIK ASTUNENAK EGINGO ZIZKIOLA USTE BAITZUEN. JOKIN, ORDEA, OSO GALTLAGORRI BEREZIA DA, EZ DU BATERE GOGOKO LANA, ETA GAINERA LOTI HUTSA DA. ISTORIOAK KONTATZEN OSO ONA BERRIZ...



BIHOTZA ZUBI

LIBURU HONETAN, POEMA ETA IPUINEN ARTEAN, JENDE ASKO AGERI DA, ETA ERA ASKOTAKOA. AGIAN ZEU ERE HEMENTXE EGONGO ZARA. EDO INOIZ GERTATUKO ZITZAIZUN HORI ERE HEMENGO PERTSONAIAREN BATI GERTATUKO ZAIO. KONTUA DA IBAIAREN BI ALDETAN BIZI GARELA GIZA-EMAKUMEOK. ETA ZUBIA FALTA. ZUBIA FALTA ELKAR EZAGUTZEKO, ELKAR MAITATZEKO, ELKARRI LAGUNTZEKO, ELKARREKIN BARRE ETA NEGAR EGITEKO. BIHOTZA ZUBI BIHURTUKO BAGENU...

***EIBARKO
LIBURUDENDETAN
SALGAI***

Haritz Lete musikari eta aurkezlea

**Kokein taldean
bateriajole, Cobran
abesle eta ETB 3
katean... aurkezle!
Haritz Lete
eibartarra edozein
eremutan aritzen da
eroso. Estreinatu
berri den ETB 3
katean 'Gaztea Live'
aurkezten du
(interneten barixaku
gauetan eta
telebistan
domeketan
22.00etan).**

-ETB 3 katean aurkezlea zara. Nola sortu zitzazun aukera hori?

Programaren zuzendariarekin harremana daukat aspalditik, laguna dut, eta berak proposatu zidan, nola musika munduan nabilen, 'Gaztea Live'-eko aurkezlea izatea.

-Zertan datza 'Gaztea Live'-ek?

Zuzeneko kontzertuak eskaintzen ditugu. Pare bat edo hiru orduko saioa da, eta bertan euskal taldeak, atzerrikoak eta pixka bat denetarik agertzen saiatzen gara.

-Nola moldatzen zara kamera aurrean?

Oraindik ohitu egin behar naiz (barreak). Ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz, baina oraindik asko daukat ikasteko, bide luzea daukat dena menperatzeko. Uste dut denbora eta praktikarekin hobe ibiliko naizela.

-Esperentzia zeneukan horrelakoetan?

Ez. Irratian lan egin nuen, baina aurkezle bezala ez naiz ibili.

-Kokein eta Cobra taldeekin ere aritzen zara. Zer egiten duzu denbora librean daukazunean?

Jo, jo dexente, eta denetarik. Lana egiteaz gain, Cobra eta Kokeinekoekin batzen naiz musika jotzeko; eta asteburuetan batzuetan foballean egitera noa edo, bestela, lagunekin irtetzen naiz kalera. Aparteko ezer ez.

-Zein da gustokoen duzun



musika taldea?

Talde asko eta asko gustatzen zaizkit. Baina nire bizitzan asko markatu nau Pantera taldeak.

-Noiz erosi zenuen azken diska?

Uda aldean erosi nuen; ez nago ziur aurretik edo ondoren izan zen.

-Zein?

Ez dut gogoratzen zein zen, badakit lagun batzuen zela. Egia esan, erosi lehen baino gutxiago egiten dut. Teknologia berrien kontu honekin errazagoa da musika lortzea.

-Gustokoen duzun abestia?

Panteraren 'Walk'.

-Telebistako saio gustokoena?

Gaur egun, 'ETB kultura'.

-Ikusi duzun azken filma?

'No es país para viejos'.

-Irakurri duzun azken liburua?

Hori gogoratu ere ez dut egiten (barreak). Irakurri... gutxi egiten dut. Hala ere, udan 'Entre limones' izeneko libu-

ru batekin hasi nintzen, eta hor nabil.

-Itsasoa ala mendia?

Itsasoa esango dut.

-Oporretara joateko leku bat?

Edozein, oporretara joateko toki txar gutxi daude, konpainia ona baldin badago behintzat. Eta, bestela, Kuba (barreak).

-Umetako oroitzapen goxo bat?

Oso haurtzaro ona eduki dudala uste dut, beraz, momentu goxo asko ditut oroitzapenean, lagunak eta abar.

-Zeini emango zenioke musu bat?

Minik ematen ez didan norbaiti.

-Eta ostikoa?

Mina ematen didanari. Hala ere, jo gutxi, eh; baina, beno, mina egiten didan bati baino gehiagori bai.

-Kolare gustokoena?

Berdea.

-Marrazki bizidun gustokoena?

Dotakon eta Arale.

Bertsotan lehiaketa

BERTSOZALE ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN, IKASTURTE HONETAN LEHIAKETA BEREZIA IZANGO DUGU. HEMEN DITUZUEN BERTSOAK BEHAR DEN MODUAN BETE, ASMATU ZEIN DEN BEHARREZKO OINA. BIDALI TXIKITTO!RI ETA ZOZKETA EGINGO DUGU PARTE HARTZEN DUZUENEN ARTEAN.

HILABETEKO IRABAZLEA



????????????????????



OINAK ASMATU

Pistina ta hondartzan
gu ibili
lagunekin jolastuz
barre ta
Arrate egunian
guztiok
oporrak amaitu ta
berriz

**kanpara
gara
eskolara
algara**

Aurtengo ikasturtean
gogoz
mate, ingurunea
gazte ta
ikasi ta ikasi
guztiok
lagunekin batera
ondo

**euskera
pasatzera
ikastera
aurrera**

Izena:

Telefono zenbakia:

aYerbe
liburudenda
zezenbide 9

Yraolagoitia
liburudenda



**Bidebarrieta 20
943 20 16 17**

ABESTU BERTSO HONEK

AGENDA 21 BURUZKO KOPLAK

Zaborra birziklatu
ta natura zaindu,
gu guztion laguntza
munduak behar du.

Eskola guztietan
ari gara lantzen,
ta hasi gara behingoz
denok erabiltzen.

Natura zaindu eta
bai errespetatu,
errekako zaborra
guk behar dugu hartu.

Agenda 21
da lurra zaintzeko,
lurra zaindu behar
dugu
ondo bizitzeko.

Naturarentzat ona
da birziklatzea,
dena polita utzi
ta denok poztea.

Belar eta landare
doaz bizitzera,
ura eta argia
zaindu behar dira.

Birziklatu, aurreztu
ta zaindu natura,
Eibarren zaindu denok
dugun kutsadura.

